



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-12-09

VI. URTEA 1.580. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

X. Nazioarteko Ziklokrosean Bart Wellens izan da azkarrena

ASTEASU Sprint borrokatu baten ostean, iazko irabazlea izan zen Sven Nysen aurretik helmugaratu zen flandiarra

EUSKALDUNA Lehen euskalduna Egoitz Murgoitio izan zen atzokoan, sailkapen orokorreko hamargarrena 7



Ezker-eskuin: Klaas Vantornout hirugarrena, Bart Wellens lehenengoa, eta Sven Nys bigarrena. ESTI EZBEIZA



Bazkaldu aurretik jendeak ardoa dastatu zuen. NEREA URBIZU

Egunero Zerkausiko jangela bete dute Txuletaren Festarekin

TOLOSA Atzo izan zen azken bazkaria; aurretik jakiak eta ardoa dastatzeko aukera izan zen 4-5

GARI URANGA CASTELLOKO JOKALARIA

«Reala Bigarren
Mailan utzita joan izana,
pena hori dauka»

IBARRA Reala utzita, Castellon «lasai,
oso lasai» bizi da orain Ibarako jokalaria 2-3

E | **Elkarrizketa****GARI URANGA** › Castelloko jokalaria

L. TERRADILLOS

«Reala Bigarren Mailan utzita joan izana, pena hori daukat»

Ibarra » Oso garbi hitz egiten du beti Gari Urangak, eta, agian, horregatik entzun behar izan ditu hainbeste kritika. Realeko gorabeherak ahaztuta, lasai ederrean bizi da orain Castellon «lasaiegi, agian».

UNAI ZUBELDIA (BERRIA)

Realean ez zeukan lasaitasuna aurkitu du Gari Urangak (Ibarra, 1980) Castellon (Herrialde Katalanak). Nekatu egin zen Donostian, eta bai beretzat eta bai Realarentzat onena beste talderen bat aurkitzea zela ikusi zuen. Euskal Herriara begira bizi da hala ere.

Protokoloa beteta, zer moduz zabiltzan galdetuz hasi beharko da...

Ondo, ondo. Azkenean Castellora etortzeko apustua egin nuen, jokatzeko ari naiz, eta sailkapenean goian gaude. Hor mantentzeko talde polita daukagu, gainera.

Futboleko jokatzeko berriz ere gogozatzen ari zarela esan daiteke?

Bai, baina kostatzen ari zait. Azken urteotan pasa behar izan dudana ere, ilusioa ere galduta neukan, eta hori nabaritu egiten da jokoan. Lehenengo partidetan kosta zitzaidan errotzioa hartzea, baina gero eta hobeto ari naiz.

Zuk ondo dakizu Euskal Herriko futbol gaia guztiekin nahastean dela, baina Castellon nola bizi da futbolera?

Alde guztietan eskatzen dute asko, eta hemen ere nahiko zorrotzak dira. Taldea goian ikusi nahi dute, nahiz eta aurrekontu txikia izan. Bigarren Mailako aurrekonturik txikienetan bosgarren daukagu

lute dut. Hala ere, ez dauka zerikusirik Realarekin; presioa askoz ere txikiagoa da.

Ezin da ahaztu Castello talde historikoa dela. Hori nabaritzen duzue?

Bai, bai. Talde historikoa da, eta zaldeek Lehen Mailara igo nahi dute. Hemen Castello izan da beti talde handia, eta orain Vila-real goian ikusita, euren parean egon nahi dute. Talde serioa da, lan ona egiten ari da, eta ez dago kontratu ikaragarriarik. Denok antzera kobratzen dugula esango nuke, eta horrek asko laguntzen du.

Kobratu esan duzu. Castellon lasaitasun hori edukiko duzu behintzat.

Taldeak ez dauka zorrik, egoera ekonomikoa onean dago, eta kluba serio ari da lanean; hemen ez da erokeriarik egin. Jokalari gazteekin egin dute aurrera, eta jokalaria horiek erantzun egin dute. Aurreko denboraldian bosgarren geratu ziren, eta denboraldi honetan beste pausobat eman nahi dugu.

Realari begira jarrita, bi aurrelari besterik ez dauka orain taldeak: Necati eta Agirretxe. Orain, agian, jokatzeko ariko zinen.

Ez dakit. Nik ez dut asko jokatu aurrelari postuan. Hemen ere ezkerretik ari naiz, eta ez dakit jokatzeko ariko nintzen. Baina kontu horri ez

diot bueltarik ematen. Liga amaitu baino hilabete batzuk lehenago banekien ez nuela Realean jarraituko, arrazoi askorengatik. Eta ez daukat inongo damurik. Realeko etapa amaitu zen, eta nahiz eta azkenean gauzak gaizki ateratu ziren, momentu onak ere bizi izan ditut.

Zergatik joan zinen Realetik?

Gauza asko gertatu ziren. Banekien entrenatzaileak taldean nahi ninduela, berarekin hitz egin bainuen, baina ezin nuela jarraitu erabaki nuen. Askotan esan didate Lehen Mailara igo izan bagina kontratu berritzeko eskatuko nuela, baina hori ez da egia. Gasteizen igo izan bagina, askoz hobeto, taldea Lehen Mailan utzita eta lanak eginda joango bainintzen. Reala Bigarren Mailan utzita joan izana, pena hori daukat.

Erabakia hartuta zeneukala azpimarratu duzu. Kirol arloko erabakia bakarrik izan zen?

Nire errendimendua jaisten ari zen, eta arrazoi asko zeuden atzean. Taldea ere beheraka zihoan, jokalaria asko joan ziren, eta nire joko ere jaitsi egin zen. Ikusten nuen bide hori ez zela egokiena ez niretzat eta ezta Realarentzat ere. **Lehen taldera iritsi zinenetik aldekoak bai, baina kontrakoak ere eduki izan dituzu beti Anoetan.**

Zergatik eduki dituzu hainbeste etsai?

Nik azken denboraldia arte ez dut sumatu hori. Aurretik maitatua sentitu izan naiz beti Anoetan, baina egoera asko okertu zen azken denboraldi horretan. Eta, tira, jokalaria batzuk beti egoten gara markatuta. Baina ez naiz ez lehenengo eta ez azkena izango.

Azken adibideak aztertuta, Reakarteri txistu jo zioten, zuri txistu jo zizuten, eta orain Aranbururi txistu jotzen hasi zaizkio.

Aldagelara iritsita, horretaz ez hitz egiten saiatzen ginen, argi baikenekuan hori ez zela ona ez jokalarientzat ez taldearentzat. Jokalari bati txistu egitea ez da ona, baina futbol zelaira joaten denak ikusi behar du bere jarrera zein den. Euren ordaintzen dute, eta nahi dutena egin dezakete. Baina, berriz diot, ez naiz lehenengo izan eta ez naiz azkena izango.

Lan ona egin, txarra egin, beti txistu hotsa. Noizbait galdetu zenuen zeure buruari zergatik gertatzen zen hori?

Norberak ikusi behar du futbol zelaietan zer egiten duen, baina nik sekula ez diot txisturik joko Realeko jokalaria bati. Orain kanpoan nago, zale gisa hitz egin dezaket, eta sekula ez nuke halakorik egingo, guk txiango etxeko jokalaria batekin. Baina futbolaren horrekin bizitzen ikasi beharra daukagu.

Jokalariak nahita ari zinetela partidak galtzen, hori ere esaten zuten batzuek. Denboraldi honetan ere antzekoak esaten ari dira.

Mikelek esan zuen bezala [Mikel Aranburuk], Reala gaur egun ez da hain ona noiz irabazi eta noiz galdu erabakitzeko. Jendearen txorakeriak dira horiek. Beti hitz egin behar da zerbait buruz eta...

Realean ez zenuen balio, eta oso ondo aritu zinen Getafen; Realean ez zenuen balio, eta sailkapenean goian zaude Castellorekin... Hain txarra ez zara izango ordutan.

Ez... [barrez]. Realean ere nire lehen bi denboraldiak onak izan ziren, taldeak berak ere kalitate handiagoa zeukalako. Baina taldea behar joan zen neurrian, eta izan nuen lesioaren ondoren, nire errendimendua jaitsi egin zen. Ni naiz hori onartzen lehenengo. Jendeak nahi duen guztia esaten du beti, baina oso lasai nago.

Zerbait esan edo egin izanaren damurik badaukazu?

Ez, ez. Gaizki pasa nuen, bai, baina gauza guztiak ahazten dira. Momentu onak bakarrik dauzkate gogoan. Gauza asko gertatu ziren, baina nor bere kontzientziarekin lasai egoteak, horrek balio du.

Zu Reala B-tik iritsi zinen lehen taldera. Zer esango zenioke orain Reala B-n dagoen jokalaria gazte horri?

Ez dakit. Une honetako egoerarekin oso zaila da igo eta ondo-ondo aritzea. Ardura handia da. Zaleek denbora asko daramate sufritzen, taldea ezinean dabilela ikusten dute, eta, tira, ulertzekoa da kritika hori.

Zer ikasi zenuen Realean?

Euskalduna izanda, kolore batzuekin harro sentitzen. Reala oso handia izan da niretzat, eta handia izango da beti. Gure betiko taldea da, eta guretzat porrota izan zen maila galtzea. Espero dut laster izango duela Lehen Mailara itzultzeko aukera.

Kolore batzuekin harro sentitzen bai, baina hamaikakotik kanpo geratzen ere ikasi zenuen Realean.

Nire postuan jokatzeko, atzeritar asko etortzen dira, eta horrek are gehiago zailtzen du lana, haiek guk baino aukera gehiago izaten baitute normalean. Baina denetik ikasi dut. Lehen ikasi dut dakidan guztia, 12 urterekin iritsi bainintzen bertara.

Atzeritarrek aipatu dituzu. Etxeko jokalariek kanpoek halako bi egin behar izaten zenuen zurrumurrua ere zabaldu zen.

Hori ez da Realeko zaleen kontua bakarrik. Leku guztietan gertatzen da berdina. Realean beti izan da oso maitatua etxeko jokalaria, baina egia da gauzak okertzen hasi direnean ere ardura handiagoa eman zaigula guri.

Eta, orain arte, zer ikasi duzu Castellon? Pixka bat lasaitzen, agian?

Bai, bai. Lasaitzen ikasi dut. Han ardura handia geneukan, ez genuen gure mailarik eman eta ez genuen Lehen Mailara igotzerik lor-

tu. Baina hemen ilusioa berreskuratzeko ari naiz. Aldaketa handia izan da, baina ona.

Orain gutxi Realaren aurka jokatu zenuen Anoetan, eta gola sartzeko aukeraren bat edo beste izan zenuen. Nola bizi izan zenuen partida hura?

Oso polita izan zen. Denboraldia hasi zenean banekien partida noiz izango zen, buruan neukan denbora guztian, eta nahiz eta erdi lesionatuta ibili nintzen, azkenean jokatzeko aukera eman zidan entrenatzaileak. Hasieran urduri nongoen, dena oso arraroa baitzen niretzat. Baina gustura amaitu nuen partida. Irabazi egin genuen, eta horizen niretzat garrantzitsuen, taldeari laguntzea. Amaieran entrenatzaileak besarkatu eta oso partida ona jokatu nuela esan zi-

Euskalduna izanda, kolore batzuekin harro sentitzen ikasi dut Realarekin

Txistu egiten zidatenak errespetatzen ditut, baina nik animatu nindutenak ditut gogoan

Orain ilusioa berreskuratzeko ari naiz Castellon; aldaketa handia izan da, baina ona

dan, gainera, eta asko balio du horrek. Banekien partida horretan jende asko egongo zela ni kritikatzeko gogoz, baina gustura amaitu nuen.

Norbaiti zerbait erakutsi nahi zenuen partida horretan?

Ez, ez. Neure buruari, agian. Neuzkan beldurrei aurre egin nahi nien. Partida ona jokatu nahi nuen, besterik ez. Eta lortu nuela uste dut.

Gipuzkoako egunkari batean zure adierazpen batzuk irten ziren, denboraldi honetan Realarekin irabazten ez bazenioten inolaz ere zeniotea irabaziko. Hautsak harrotu zituzten adierazpen horiek.

Nik ere entzun nuen, bai, eta erantzuteko gogoia neukan. Hori idatzi zuenari arrazoiak emango diot adierazpen horiek egin nituen frogak baldin badauzka, baina gezurra da dena. Nik ez dut sekula halakorik esan eta ez nuke esango, asko maite baitut Real.

Berri ere izango da Lehen Mailan jokatzeko aukerarik?

Argi dago Realetik irtenda hori dela nire helburua. Aurreko denboraldian itxura ona hartu nion Castellori, eta denboraldi honetan berriz ere Lehen Mailarako pausoa emateko talde ona izan zitekeela pentsatu nuen. Eta, tira, oraingoz apustua ondo irteten ari zaidala esan daiteke.

Lehen Maila aipatu dugu, baina Bigarren Mailan goza daiteke futboleko jokatzeko?

Bai, bai. Bigarren Mailan oso jokalaririk onak daude, eta askok ibilbide polita egin dute bertan.

Euskal Herriki hona etorrita, zer izan da zuretzat zailena?

Bizimodu aldaketa. Lagunak ez ikustea, familia ez ikustea... Jendearen hutsunea nabaritzen da. Inguru ere tristeagoa da hemen, baina ari naiz ohitzen, eta, une honetan, jokatzeko da niretzat garrantzitsua. Euskal Herrian bizimodu lasaia daukat, mendialdean bizi baina, eta horregatik izan da aldaketa hain handia.

Konkurto Legea. Orain gutxiarte ez zenuen jakingo zer zen, baina orain azalpen ederrak emateko gai izango zara. Jokalarientzat zer da Konkurto Legea?

Oso argi ere ez daukat, baina, esaten dutenez, jokalariorik ez omen dugu kobratuko zor diguten diru kopuru guztia. Kobratzekotan zati bat bakarrik kobratuko omen dugu. Horixe dakit, besterik ez. Baina inork ez daki ziur zer gertatuko den. Ematen duenez, taldeentzat gero eta errazagoa da Konkurto Legea eskatzea, baina guk ez daukagu oso argi zer ondorio dauzkan.

Reala desagertu egin omen daiteke...

Ez, ez. Ez dut uste hori gertatuko denik. Realak jende gehiegi dauka atzean kluba desagertzeko. Historiari handiko kluba da, eta ezinezkoa iruditzen zait desagertzea. Hainbeste iritzi daude, hainbeste jende jakintsu dago, denetik esaten da, baina ez, ez.

Izen bat botako dizut: Iñaki Badiola.

Ez dut hitz egingo berari buruz. **Euskadi, Euskal Herria... Selektzioaren kontuarekin ere zalaparta handia sortu da, eta zuk ere sinatu zenuen agiria. Zer iritzi daukazu?**

Pauso hori ematea erabaki genuen, eta ikusten da batzuei ez zaiela ondo iruditu. Zer sinatu dugun irakurri nahi duenak eskura dauka agiria. Gure iritzia oso argi dago bertan.

Txistuak eta txaloak, denetik entzun behar izan duzu Realean. Baina, behin taldea utzita, zein mezu bidaliko zenieke Realeko zaleei?

Nire ondoan egon direnei eskerrik eman nahiko nizkieke. Batzuek oharituko balira benetan zenbaterako mesedea egiten duen jendea alde edukitzeak... Zaleak animatzen nindutenean asko animatzen nintzen neu ere, eta horiei milesker esan nahiko nieke, bihotz-bihotzez. Eta txistu egiten zidatenak ere errespetatzen ditut. Bakoitzak nahi duena egiteko esku bidea dauka, baina alde neuzkanekin gogoratuko naiz ni.

Euskal Herrira bueltan noiz?

Ikusiko dugu. Handik aterata naizenez, urte batzuk pasa beharko ditut kanpoan, baina gogo handia daukat berriz bueltatzeko.



Urtero bezala, Azoka Berezia izango da abenduan, hilaren 20an, hain zuzen ere. NEREA URBIZU

Urteko azken hilabetea emankorra izango da kultur jardunaldiei dagokionez

Tolosa » Eguberriak direla eta, haurrentzat zuzendutako egitarau zabala antolatuta dute, besteak beste, abendurako.

ERREDAKZIOA

Azken hilabetea. Gustuko izan ala ez, Eguberriak ere gainean ditugu eta ohiko jardueraz gain, egitarau zabala prestatu dute honen harira, batik bat etxeko txikienei zuzenduta.

Ohi bezala, Aranburun erakusketak jarriko dituzte ikusgai, Titirijaiko *Errusiara leihoa* atzo itxi zutelarik. Leidor antzokia ere ikuskitzuzun ugariaren lekuko izango da hilabete honetan, tardean, zinema, antzerkia, sari banaketak edota musika.

Azken aldira, Zerkausia ere herriko kultur ekitaldi eta jardueren topaleku bat gehiago da eta hilabete hau ez da salbuespena. Hala, ekitaldi ugari egingo dituzte bertan, Azoka Berezia, musika eta haurrentzako jolas gunea. Hona hemen zehaztuta ekitaldi guztiak:

Aranburu jauregia

- **'El bosque'.** *El bosque*. Ingurugirio departamentudak antolatutako erakusketa, La Caixa babestuta. Hilaren 18tik urtarrilaren 18ra.
- **Juan Jose Agirre.** Hilaren 20tik

otsailaren 14ra bitarte, Juan Jose Agirreraren erakusketa.

Kultur Etxea

- **Alpino Uzturreren 50. urteurrena.** Abenduaren 13an, larunbatean, elkarrean 50. urteurrenoko DVDaren proiektioa, eguerdian.

■ Dauri Alcalaren erakusketa.

Margolari dominikarraren margolanen erakusketa, abenduaren 15etik 20ra bitarte, Ereite elkarteak antolatuta.

■ **Odol-ematea.** Abenduaren 15ean, odol emaleen hileroak adol ateratzea, 18:00etan.

■ **Etorkinaren eguna.** Etorkinaren Egunaren inguruko programazioa. Etorkinei zuzendutako informazio solasaldia, Ereite elkarteak antolatuta, abenduaren 17an.

■ **Literatur hitzaldia.** Galtzaundi elkarteak antolatuta, abenduaren 18an.

■ **Merkatu Txikia.** Laskorain ikastolaren proiektu solidarioa, abenduaren 26tik urtarrilaren 5era bitarte.

Leidor aretoa

■ **Kirol gala.** Kirol batzordeak antolatuta, sari banaketa, hilaren 16an, asteartea.

■ **Isidro Larrañaga.** Hilaren 19an, ostiralarekin, Isidro Larrañaga Musika Eskolaren Eguberrietako kontzertua.

■ **Poxpolo eta Mokolo.** Hilaren

20an, Poxpolo eta Mokolo pailazoak, 17:00etan.

■ **Tolosako Orfeoia.** Eguberrietako kontzertua, hilaren 23an.

■ **'Inalanbrikak'.** Hilaren 26an, haurrentzako antzerkia, 17:00etan.

Besterik

■ **'Eskerrak zuri'.** Galtzaundi antolatuta, aipamen berezien banaketa, 20:00etan, batzar aretoa, hilaren 19an.

■ **Azoka Berezia.** Gabonetako Azoka Berezia, hilaren 20an.

■ **Tolosako Musika Banda.** Tolosako Musika Bandaren Eguberri kontzertua, hilaren 24an, 12:00etatik aurrera, Zerkausia.

■ **Olentzero.** Olentzeroren etorrera, Zerkausia.

■ **Tolosako Musika Banda.** UUrte Zahar kalejira, 20:00etan, hilaren 31n.

■ **Gabonetako haurrentzako egitaraua.** Zerkausia, hilaren 28, 29, 30 eta 31n puzgarriak eta jolasak, zinea eta ikuskizunak.

■ **Alurtxiko egitaraua.** Urkizuko auzo elkarrekin antolatutako egitaraua: Hilaren 26an, 17:30ean, ipuin kontalaria, Galtzaundiren eskutik; hilaren 27an, 20:00etan mendia erakusketa eta hitzaldia, Asier Izagirre eta Edurne Pasabanen eskutik; urtarrilaren 3an, 17:30ean, umeentzako pailazoak eta txokolatada.

Iturriondoren aurkakoan berreskuratu dute garaipena

Tolosa » 6-1eko irabazi zuen asteburuan Laskorain areto futbol taldeak; datorren astean Oriora egingo dute bidaia.

ERREDAKZIOA

Garaipena ez zuten ikusten azkenaldian Laskorain areto-futboleko mutilek. Maldan gora jarri zitzaizkien azken aldian egoera, eta pasa den asteburuan ez zuten aurkari makala egoera honi buelta eman ahal izateko. Baina, taldeko arduradunek esan bezala, «sinismenaren birtartez zezena adarretatik heldu eta konplexurik gabe etsaiaren aurrean oldartu» ziren, garaipen erraza eskuratu.

Horitxoek oraingoan, Iturriondo boteretsuaren gainetik pasa ziren amorrutik beteriko euren indar guztia erakutsiz, markagailuak amaieran erakutsitako 6-1eko azken emaitza motza ere gelditu litekeelarik. Alonso entrenatzaileak norgehiagoka guztiz bikaina planteatu zuen paperaren gainean eta laukote, defentsa eta eraso alda-

tzaileen lepotik, merezitako etekina aterazio neurketari.

0-1 galtzen hasi ziren ikastalakoak errebotetzko kontraeraso batean bizkaitarrek egin baitzuten estraineko gola. Taldea hala ere, eroso zegoen kantxa gainean eta berehala iritsiko zen berdinketaren gola Otxoa gaztearen oinetatik 1-1-eko emaitzak aldagaratu zituelarik bi taldeak lehen zatia amaieran.

Bigarren zatian, golak

Berdinketa berehala apurtu zen bigarren erdian. Izan ere, hasi bezain pronto Gilek aurreratu zituen etxekoak eta jarraian Otxoak beste behin, eta Saldiasek hirutan eginiko sarreratzei esker 6-1eko azken markagailua eskuratu zuten ikastalakoak.

«Taldekide guztiak beteriko lan bikainari esker», balioz beteriko hiru puntuek taldearen animoak jasotzea lortu dute. Horretaz gain, arduradunek jokalariek askoren gorraipena egin nahi izan zuten partidaren ostean, Telletxea eta Lander garrantzitsuen bajak gutxi nabarmendu baitziren norgehiagoka osoan zehar. Ikastalakoan nagusitasuna ukaezina izan zen norgehiagoka guztian zehar, hiru garren postuan zegoen Iturriondo talde indartsuaren aurrean.

Saldiasek lorturiko hat-trick-a bezain pozgarria da Domentxe atezainak burututako partida, atepan segurtasun handia eskaini baitzuten, eta jokaldi erabakigarrietan «gelditu ikusgarriak» egin zituen.

Hurrengoan, derbia Datorren astean Oriora egin behar harko dute bisita horitxoek beste derbi gipuzkoar bati aurre egiteko helburuarekin, bigarren garaipena erreskan lortzea, mahai gainean benetako golpe bat ematea suposatuta luke ligako lehen postuetara hurbiltzeko «borroka oztopatu» honetan.

Hurrengoan, derbia

Pasa den asteburu Usabalen garaile irten zen taldea, Javi delegatuak, Alonso entrenatzaileak, Domentxe, Amatriain, Barriola, Saldias, Otxoa, Murgi, Ekhi, Gil, Zabala, Telleria eta Endika jokalariek osatu zuten.

Onsalo, Euskadiko Eliteko txapeldun berria

Areso » Nagusitasun osoz irabazi zion Aresoko pilotariak Xabier Andreuri Laudioko pilotalekuan (6-22).

ERREDAKZIOA

Unai Onsalo aresoarra (egungo Euskadiko txapelduna) Euskadiko Pilotako Eliteko txapeldun berria da. Hain zuzen ere, Jon Bengoetxearen bajarengatik jokatu zuten Unai Onsalok Eliteko txapelketako finalerdia. Xuban Armendariz aurka (gaur egungo Espainiako txapelduna) 22-3 irabazi zuten finalerdian eta finala ere aise irabazi zuten Xabier Andreuren aurka.

Eskuinkada ederrak eman zituen Onsalok eta Andreuk ezin izan zuten aresoarrarekin. 6-22ko emaitzarekin amaitu zen partida, aresoarra gehiago izan zelaren isla ezin hobea zelarik markagailua.

Partidaren hasieratik ikusi zen nafarraren nagusitasuna, baina aurkariak tinko eutsi zion hasieran, 4-6koarekin. Orduetik aurrera,

partida Onsalorentzat izan zen erabat, 4-12ra heldu arte.

Bestalde, Euskadiko Eliteko III. Eskuz Banakako Txapelketaren 3. eta 4. postuak ere jokatu zituzten. Kasu honetan, Xuban Armendarizek lortu zuen 3. lekua, Asier Beitak 16 puntu eginda bukatu ostean.

Renobales, DVtik kanpo

Diario Vasco Txapelketan, Urretxun jokatu zuten finalaurrekoa. Bertan jokatu zuten Ugaitz Renobales pilotari alegiarrak, Larrinaga bikotearekin batera. Baina finalaren txartela aurkarientzat izan zen, Urrutikoetxea-Uzkudunen-tzat, hain zuzen. Partida estua izan zen amaierara arte eta 22-19ko markagailuarekin amaitu zuten.

Urrutikoetxea izan zen nagusi partida osoan, baina sei huts egite izan zituen, partida kolokan jarri zuena. Renobalesek bere aukera ikusi zuen bertan eta bere indar guztiak jarri zituen markagailuari buelta emateko; sakez, airez, dejadaz... 21-15etik 21-19ra pasa zuen emaitza Alegikoak; baina azken tantoa Urrutikoetxearentzat izan zen txokoarekin.

Tau-ren Euroligako partidarako sarrerak eskuratzeko aukera

Tolosa » TAKEK 110 sarrera gorde ditu; bertara joateko interesa dutenek 'takesb@takesb.com'-en eman beharko dute izena.

ERREDAKZIOA

TAKEk antolatzen dituen ekin-tzen artean, aurtengoan TAUnen partida bat ikustera joateko aukera zabaldu dute. Partida DKV Joven-tut-en aurkakoa izango da eta Euro-ligako lehen faseko azken parti-da izango da. Elkartetik argitu du-tenez oraindik ez dago garbi neurketa urtarriaren 14 edo 15ean

jokatuko duten (ziurrenik 20:30-ean), baina klubak 110 sarreraren erreserba egina du. Eguna eta ordu zehatza ez dira jakingo partida jokatu aurreko astera arte.

Hasiera batean 110 plaza hauek klubeko jendarekin osatzea litzateke helburua, baina horrela ez balitz, ondoren klubeko jendearen familiakoentzat izango da lehen-tasuna eta azkenik (plaza libreak geratzen badira), partida ikusi nahi duen beste edonorentzat.

Prezioei dagokionez, klubeko partaideek 15 euro ordaindu beharko dute eta familiakoek eta gainerakoek 20 euro.

Esan bezala, lehen-tasuna klube-

ko partaideek izango dute eta gainerakoentzat izango da gainera bat osatuko dute. Izena emateko, takesb@takesb.com helbidera idatzi behar da, eta urtarriala hasieran e-mail bidez jakinaraziko da zein 110 izango diren partidarako sarrerak izango dutenak.

Behin konfirmazioa jaso eta gero, e-mail horretan adieraziko da 15 edo 20 euroren ordainketa nola egin, partidara joateko hainzortua non eta noiz izango den...

Prezioan partidarako sarrera eta autobuseko bidaia sartzen dira eta 110 pertsona joatea lortuz gero, partidako atsedendian kantxa zapaltzeko aukera izango dute.

Carlos Peñak 24 orduz egingo du igeri Bilbon

Tolosa » Hilaren 18 eta 19 artean egingo du igeri Nervion ibaian, gaixotasun psikikoa duten pertsonen alde.

ERREDAKZIOA

Pasa den hilean burutu zuen bere azken abentura Carlos Peñak Sella ibaia gurutzatuz eta dagoeneko badu buruan hurrengo erronka. Urtero bezala, sasoi honen, Peñak Nervion ibaian egingo du saiakera. Hain zuzen ere tolosarrak 24 orduz egin nahi du igerian, bizkarez, gaixotasun psikikoa duten

pertsonen alde. Hilaren 18 eta 19aren arteko eguna burutuko du igerian, Bilboko Nervion ibaiko uretan.

Hilaren 18an, ostegunean, goizeko 10:00etan abiatuko da abenturazalea Guggenheim paretik. Helmuga ere 10:00etan izan beharko luke, ostiralean. Tolosarraren saiakera EITB taldeak antolaturiko elkartasun astearren baitan kokatu dute eta bihar aurkeztuko dute jendaurrean, 10:30ean, Bilboko museo maritimokoan. Berarekin batera Ander Iribarrek eta gaixotasun psikikoen elkarteko ordezkari batek egingo dute agerraldia.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Laburrak

Enpresa berritzailea sortzeko bigarren aukera

TOLOSA • Bihar, Tolosaldea Garatzen-Mondragon Corporacion enpresa ekimen berritzailea sortzeko bigarren lehia eta aurkeztuko dute. Ekitaldia Apataerreaka industrialgunean kokatuta dagoen Obeki enpresan izango da.

Inauterietaz hitz egiteko jai batzordearen bilera, gaur

TOLOSA • Gaur, jai batzordeak deituta, bilera izango da Kultur Etxeko areto nagusian. 19:00etan hasiko da bilera eta jorratuko den gaia Inauteriak izango da.

Txinparta elkarteko kide izateko aukera, zabalik

TOLOSA • Txinparta elkarteak, abenduaren erdialdean egingo duen ohiko batzar nagusian, besteak beste bazkide berrien onarpena aztertuko du. Elkarteko kide izateko interesa dutenek, 607 83 59 67 telefonora dei dezakete informazio gehiago eskatzeko.

Turkistanen inguruko hitzaldia izango da bihar

TOLOSA • Tarana Karimovak informazio hitzaldia eskainiko du bihar, bere herrialdea den Turkistani buruz. Ekitaldia Kultur Etxean izango da, 19:00etan, eta *Ezagutzen al duzu Turkistan?* du izenburu saioak.

Euskal selekzioaren inguruko hitzaldia, etzi

TOLOSA • Ezker abertzaleak antolatuta, etzi 20:00etan, *Selekzio bat, nazio bat, Euskal Herri bat* izenburupean hitzaldia izango da. Udaltzeko Batzar Aretoa, hizlari izango dira hainbat kiroolari eta Euskal selekzioako kideak.

Gaztetzaren urteurrena ospatzeko, babarrun jatea

ALEGIA • Alegiako Gaztetzak 21 urte betetzen ditu aurten, eta urteurrena gogoratzeko antolatutako ekintzen baitan, hilaren 13an babarrun jatea egingo dute. Egun horretan ospatuko dute ere, AHTren aurka daudenen aldeko eguna. Bazkarira joan nahi dutenek 12 euroren truke eros dezakete dagoeneko txartelak, ohiko tabernetan.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai. Tolosaldeko Alde Zaharrean. Merkea, obra egin beharra dago. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakietara: 657 23 00 11 edo 634 91 94 82.



Irudian, Klaas Vantornout, Bart Wellens eta Sven Nys saria jasotzeko orduan. Iñaki Amenabar Asteasuko alkatea (ezkerrean) sariak banatzen ari du zen. E. EZEIZA

Izarren artean, Bart Wellens izan da garaile sprint borrokatu baten ostean

Asteasu » Faborito Nys izanik ere bigarren egin zuen X. Ziklokros proban; lehen euskalduna Egoitz Murgoitio izan da.

NEREA URBIZU

ZikloKroseko Munduko Kopako txapeladuna herenegun izan zen Igorren irabazi ondoren, eta atzo, faborito nagusia bazen ere, bigarren egin zuen Asteasuko X. Nazioarteko ziklokros proban: Sven Nys da bigarren egin zuena. Honen aurretik Bart Wellens izan zen, flandiarrarekin. Sprint borrokatuan bukatu zuten proba bi flandiarrek, eta denboraberdinean burutu bazuten ere (ordubete eta bost segundo), Wellensen gurpilak lehena izan zuen lehenengo helmugako marra.

Sprint-ean hasi aurretik bi txirrindulari handiak ia elkarrekin joan ziren batez ere azkeneko bira, beti ere Nysek markatuz nahi zuen erritmoa. Wellensek ederki asko erantzun zituen Nysen eraso eta estrategiak. Tino Zaballa espainiarrek zortzigarren egin zuen. Aipatu behar ere, lehen euskalduna Egoitz Murgoitio izan zela, sailkapen nagusian hamargarren, hain zuzen ere.

Lasterketa Klaas Vantornouten hasiera onarekin hasi zen, baina azkenean taldetxo bat osatu zen, Tino Zaballa barne zegoela. Hirugarren biran Nysek, Stybarrek eta Wellensek ihes egin zuten eta Nysen eraso gogor baten ondorioz, Stybar atzean gelditu zen. Azkeneko 500 metroak borrokatuak izan ziren: Wellensen bizikletaren gur-

pil bat lokatzetan trabatu zen, esaterako. Nysek 10 metro atera zizkionean bazirudien garaipena harrentzat izango zela, baina Wellensek indartsuagoa izan zela erakutsi zuen.

Azkenean, ihes egindako bi txirrindularien artean txapela geldituko zela argi zegoen. Esan bezala, Nys ahalegindu zen Wellens atzean uzten, baina beti ongi erantzun zuen txapeladunak.

Ibilbidea zortzi aldiz egin behar izan zuten txirrindulariek. Egun hauetako euria ez zen gehiegi igerri eta bizikletan ibiltzeko lokatzak ez zuten espero zen bezainbeste oztopatu. Ondorioz, lasterketa «azkarr» izan zen, arina. Bira bakotza batz beste zazpi minutu eta erdian egin zuten.

Murgoitio lehen euskalduna

Sven Nys eta Bart Wellens Flandesen oso txirrindulari estimatuak dira eta jarraitzaileak banatuta dauzkate. Iaz Asteasuko proba Nysek eskuratu zuen eta aurten ere hala espero zitekeen, baina txirrindulari on asko bildu zen. Aipatu behar, lehen hiru postuak Flanderesera joan direla.

Euskaldunen artean Egoitz Murgoitio izan zen lehenengoa eta bigarren, berriz, David Seco. Unai Yusek hirugarren egin zuen. Aurtengo nolabaiteko ezustekoa Jaber Ruiz de Larrinagak eman du; punta-puntako txirrindularia dela erakutsi du denboraldian zehar, esaterako Spiuk Txapelketako liderra izan da, baina proba ez zuen ondoegi burutu, atzealdean bukatuz. Badirudi arazo mekanikoak izan zituela eta emaitza huraxe izan zen.

» SAILKAPENAK

Sailkapen orokorra

- **Lehenengoa.** Bart Wellens (Flandes). Ordu eta bost segundo.
- **Bigarrena.** Sven Nys (Flandes). Ordu eta bost minutu.
- **Hirugarrena.** Klaas Vantornout (Flandes). Ordu eta 23 segundo.
- **Laugarrena.** Zdenek Stybar (Txekiar Errepublikak). Ordu bat, minutu eta 15 segundo.
- **Bosgarrena.** Sven Vanthourenhout (Flandes). Ordu bat, minutu eta 20 segundo.

23 urte azpikoak

- **Lehenengoa.** David Juarez.
- **Bigarrena.** Erlantz Uriarte.
- **Hirugarrena.** Jon Izagirre.

Lehen euskaldunak

- **Lehenengoa.** Egoitz Murgoitio (Abadiño). Baque kafeak taldea.
- **Bigarrena.** David Seco (Busturia).
- **Lehenengoa.** Unai Yus (Gasteiz).



Egoitz Murgoitio txirrindularia izan da euskaldunen artean lehen. ESTI EZEIZA



8°
3°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	5°
HOTZENA	2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Erakusketak

■ **Zizurkil.** Felix Iñurrategi Fundazioko argazki erakusketa Atxulondo kultur etxean. Inaugurazioa, asteartean 19:00etan.

Deialdiak

■ **Ibarra.** Ibarrik Misio Taldeak Ekuador, Eritrea, Honduras eta Indiaren alde egingo duen Merkatu Txikirako material parrokiako lokaletara eraman daiteke 17:00etatik 20:00etara. Dirua, Kutxako 21010043130011656899 kontuan ingresatu daiteke.


■ **Berastegi.** Bigarren eskuko azokarako materiala (arropa, jostailuak, liburuak, CDak...) Erretoretxera eraman beharko dira 16:30etik 18:00etara. Lortzen den dirua helburu solidario baterako izango da.

■ **Elduain.** Udalak herriko silo bolen plastiko guztien bilketa puntua. Artatxu baserriaren ondoan finkatuta dauka eta hilaren 17an bertara eraman beharko dira bolak lotuta, haizeak bola hauek altza ez ditzan.

■ **Tolosa.** Hezitzaileek asko egin dezakete ikastaroa antolatuta Udaleko Euskaraz Zerbitzuak hezitzaileak motibatu eta beraien jardueretan euskararen erabilera sustatu dezaten, abenduaren 22an eta 23an, 9:30etatik 12:30etara. Izenematea, Euskara Zerbitzuan.

■ **Tolosa.** Ziklomotoeren inspektzioa egingo dute Ferialekuan hilaren 15ean eta 16an, 10:00etatik 14:30era, 22 eurotan. Aurretik txanda eskatu behar da Udaltzaingoan (943 675858).

■ **Tolosa.** 27. Shanti Trofeoan



Azken aldiz astindu dituzte hariak

TOLOSA ● Helduentzat, gazteentzat, haurrentzat, eskuekin eginkoak, trapuzkoak, umorezkoak, trajikoak, etxeokak, kanpokoak... Era guztietako saioak izan dira hamar egun luzez Titirijai-08ren baitan. Baina jaialdiak ere bereak egin zuen atzokoan. Jai egunarekin batera azken txotxongiloak ikusi ahal izan genituen (Irudian, Errumaniako Arlechino taldearen *La pequeña brujita*). Kultur Etxea bete zuen emanaldiak eta oro har aurreten eskaini diren saio guztiek lortu dute arrakasta, baita *Errusiara leihoa* erakusketak ere. E. EZEIZA

izen-ematea Shanti Kirolak denda eman daiteke izena: infantilek alebinek eta benjaminak.

■ **Tolosaldea.** Tolosaldea Garatzenen Inmigratio Sailak literatur lehiaketa antolatuta du *Emakumeen kontribuzioa migrazio prozesuetan* gaiari buruz, euskaraz eta gaztelaniaz, 16 urtetik beherakoentzat eta gorakoentzat. Lanak Tolosaldea Garatzenen (San Esteban, Tolosa) entregatuko dira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

euskaraz 13!
pauso bat harago
Kontseiluaren 10. urteurrena
* abenduak 13 * BEC * 18:00
laguntzailea **hitza**
Ezinbestekoa da doako sarrera eskuratzea:
Bilboko Elhar megadendetan
Arabako Euskarazko Kutzako bulegoetan
KONTSEILUA

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:
5 liburu
80€

10 liburu
140 €

Salmenta puntuak:
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bulegoetan



1936KO GERRAKO OROITZAPENAK
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI

galtzaundi

FOROALDEKO ETAKETZALDEAK

hitza